— Ohikotasuna.

— Kontutan hartzea egoki iritzitako gainontzeko zirkunstantziak.

*31. Art. Indargabetzea.*

1. Ordenantza honetan aurreikusitako arauhauste eta santzioak, arinak direnean 3 hilabetetara, larriak direnean 6 hilabetetara eta oso larriak direnean urtebetera indargabetuko dira.

2. Arauhausteen indargabetze-epea egin den egunetik hasiko da zenbatzen. Interesatuak jakinda zigortze-bidearen hasierak indargabetzea eten egingo du eta ustezko arduradunari leporatu ezin izango zaion zioaren ondorioz hilabete baino gehiago espediente zigortzailea etenda egonez gero indargabetze-epea berriro zenbatzen hasiko da.

3. Santzioen indargabetze-epea ebazpena trinkoa egingo den biharamunetik aurrera hasiko da zenbatzen. Interesatuak jakinda egiterapidearen hasierak indargabetzea eten egingo du eta ustezko arduradunari leporatu ezin izango zaion zioaren ondorioz hilabete baino gehiago hura etenda egonez gero indargabetze-epea berriro zenbatzen hasiko da.

BALIOGABETZE-ERABAKIA

Ordenantza honek indarra hartuko duenean, berarekin bateraezin diren edo bertan jarritakoaren aurka egiten duten maila bereko edo beheragoko erabaki guztian indargabeturik geltituko dira.

AZKEN ERABAKIA

Ordenantza hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hamabost egunera jarriko da indarrean.

Legazpi, 1998ko urtarrilak 29.—Alkateak.

(172) (975)

— Habitualidad.

— Demás circunstancias concurrentes que se estime oportuno considerar.

*Art. 31. Prescripción.*

1. Las infracciones y sanciones previstas en esta Ordenanza prescribirán, si son leves, a los tres meses, si son graves, a los seis meses y las muy graves, al año.

2. El plazo de prescripción de las infracciones se computará desde el día en que se hubiere cometido. Interrumpirá la prescripción, la iniciación, con conocimiento del/de la interesado/a, del procedimiento sancionador, reanudándose el plazo de prescripción si el expediente sancionador estuviera paralizado por más de un mes por causa no imputable al/a la presunto/a responsable.

3. El plazo de prescripción de las sanciones comenzará a contarse desde el día siguiente a aquel que adquiera firmeza la resolución por la que se impone la sanción. Interrumpirá la prescripción, la iniciación, con conocimiento del/de la interesado/a, del procedimiento de ejecución, volviendo a transcurrir el plazo si aquel está paralizado durante más de un mes por causa no imputable al/a la infractor/a.

DISPOSICION DEROGATORIA

A partir de la entrada en vigor de la presente Ordenanza, quedan derogadas cuantas disposiciones de igual o inferior rango se opongan, contradigan o resulten incompatibles con la misma.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor a los 15 días de su íntegra publicación en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa.

Legazpi, a 29 de enero de 1998.—El Alcalde.

(172) (975)

*Iragarkia*

1998-01-28an Udal-Gorporazioaren Osoko Bilkurak behin betiko onartu zuen Legazpiko Udalaren onura publikoko mendian, Arrobi izenekoan, larratzeak arautzeko ordenantza. Ondoren Toki-Jaurpidearen oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legearen 70-2 artikuluak aurreikusten duenaren arabera eta bertan ezarritako ondorioetarako, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN araudiaren textu osoa argitaratzen da.

LEGAZPIKO UDALAREN ONURA PUBLIKOKO MENDIAN, ARROBI IZENEKOAN, LARRATZEAK ARAUTZEKO ORDENANTZA

Azken hamahiru urte hauetan, Gipuzkoako Foru Diputazioak beste Udalerrietako Onurako mendietan larreak hobetu eta ustiatzen eduki duen esperientzia ona izan denez, orain beharrezkoa dela uste dugu «Arrobi» deituriko Onurako mendian larratze horiek baimentzeko mekanismoak eta erabiltzeko erak ordenantza baten bidez arautzea.

Horregatik Legazpiko Udalak bere mendiak antolatu eta ustiatzeko duen eskumenaren indarrez, Baso Administrazioak emandako arauak betez, ekainaren 13ko 1372/1986 Errege Dekretuak onartutako Udalen Ondasunen Erregelamenduko 39.42 eta 101. artikuluetan ezarri bezala,

*Anuncio*

Aprobada definitivamente por el Pleno de la Corporación en sesión del día 28-01-98, la Ordenanza reguladora del pastoreo en el monte de utilidad pública Arrobi, se publica a continuación el texto completo de la Ordenanza en el BOLETIN OFICIAL de Gipuzkoa en cumplimiento de lo dispuesto en el artículo 70-2 de la Ley 7/85 de 2 de abril, reguladora de las Bases de Régimen Local y a los efectos en él previstos.

ORDENANZA REGULADORA DEL PASTOREO EN EL MONTE DE UTILIDAD PUBLICA DE LEGAZPI, «ARROBI», PERTENECIENTE AL AYUNTAMIENTO DE LEGAZPI

De la positiva experiencia de mejora y aprovechamiento de pastos efectuada por la Diputación Foral de Gipuzkoa en diversos montes de U.P. lindantes con el monte «Arrobi» incluido en el catálogo de los de U.P. del T.H. de Gipuzkoa a lo largo de estos trece últimos años, se deriva la necesidad de regular mediante una Ordenanza los mecanismos de autorización y formas de uso de los citados pastos.

Por ello en virtud de la competencia atribuida al Ayuntamiento de Legazpi en materia de ordenación y aprovechamiento de los montes de su pertenencia, observando las normas dictadas por la Administración Forestal, tal como se establece en los artículos 39, 42 y 101 del Reglamento de Bienes de las Entidades Locales aprobado por Real Decreto 1372/1986, de 13 de junio,

XEDATZEN DUT

## I. TITULUA

## XEDAPEN OROKORRAK

*1. Artikulua.*

Zera da ordenantza honen xedea Gipuzkoako Lurralde Historikoko Onura Publikoko Mendien Katalogoan sartuta dagoen Arrobi izeneko mendian, larreak ustiatzeko arauak ematea.

Larratzea, mendi horrek izan ditzakeen ustiapenetako bat, mendia zaindu eta hobetzearekin bat datorren eran egin behar da, uztailaren 8an emandako Gipuzkoako Mendien 6/1994 Foru Arauari, indarrean dagoen Legazpiko Onura Publikoko Zelaiak Antolatzeko Planari eta, batez ere, Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan ezarritakoari jarraituz.

*2. Artikulua.*

Larratze gaietan Legazpiko Udalak eman ditzakeen baimenak bertako herritarren edo udal barrutian dauden nekazaritzako ustialeku edo finken titularren ganaduarentzat izango dira batez ere, behi, zaldi edo ardi espezietakoak izan eta umedun edo umerik gabeko abere emeak edota azienda berritzeko abereak badira.

Zentzu horretan, larratzeko orduan lehentasuna izango dute artikulu honen aurreko paragrafoan ezarritakoa betez, Arrobiko auzo larreak, antolamendu baten barruan, ustiatzen ibili ziren titularren aziendek.

*3. Artikulua.*

Legazpiko Udalak, larreak ustiatzeko Urteko Planen bidez, zehatz ditzake zeintzuk diren larreratzeko tokiak eta denborak eta, era berean, espezieka larra dezaketen kantitatea ere. Ezarri eta arautu ditzake, era berean, aldi baterako edo iraunkorki aziendentzat sartzea debekatuta egongo diren larre tokiak, eta «hobetutzat» hartzen diren larre tokietarako baldintza espezifikoak jarri ere.

## II. TITULUA

## LARRATZEA BAIMENTZEKO BALDINTZAK

*4. Artikulua.*

Ordenantza honek hartzen duen eremuan, oro har, larratzeko baimena eman daiteke behi, ardi eta zaldi aziendak dituzten abaltzainek ordenantzan dauden baldintza objetibo eta subjetiboak bete eta jarriko diren ustiatzeko kuotak ordaintzen badituzte.

*5. Artikulua.*

Auzo larreak ustiatzeko udal baimena eska dezakete I. tituluko 2. artikuluaren barruan egon eta zerga eta auzo betebeharretan eguneratuta badaude.

*6. Artikulua.*

Larratze erregimenean eduki nahi den aziendak behar bezala identifikatuta eta Nekazaritza Ustialekuen erregistroan izena emanda egon behar du eta, saneamenduari eta abereen mugimenduari buruz dagoen arautegia betetzeaz gain, Gipuzkoako

DISPONGO

## TITULO I

## DISPOSICIONES GENERALES

*Artículo 1.*

Es objeto de la presente Ordenanza la Regulación del Aprovechamiento de Pastos en el monte «Arrobi», incluido en el Catálogo de los montes de Utilidad Pública del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

El pastoreo, uno de los aprovechamientos de los que es susceptible el monte, se realizará de modo que sea compatible con la conservación y mejora del monte, conforme a lo establecido en la Norma Foral 6/1994, de 8 de julio, de Montes de Gipuzkoa, el vigente Plan de Ordenación de los Rasos de Utilidad Pública de Legazpi, y en particular en consonancia a lo que se establezca en los correspondientes Planes Anuales de Aprovechamiento de Pastos.

*Artículo 2.*

Las autorizaciones que otorgue el Ayuntamiento de Legazpi en materia de pastoreo se dirigirán preferentemente al sostenimiento de aquel ganado que siendo propiedad de los vecinos de este municipio o de titulares de explotaciones o fincas agrícolas ubicadas dentro del ámbito municipal, pertenezca a las especies vacuna, equina u ovina y se englobe en la categoría de animal de vientre con o sin descendencia, y/o animal destinado a reposición.

En este sentido, se dará prioridad al mantenimiento de la cabaña ganadera de aquellos titulares que reuniendo los requisitos establecidos en el párrafo anterior de este artículo, hayan venido ejercitando el aprovechamiento ordenado de los pastos vecinales de Arrobi.

*Artículo 3.*

El Ayuntamiento de Legazpi, a través de los Planes Anuales de Aprovechamiento de Pastos, podrá determinar las zonas y periodos de pastoreo, así como la carga pastante por especies. Podrá fijar y regular igualmente las zonas en las que queda prohibida temporal o permanentemente la entrada de ganado, además de fijar las condiciones específicas para las zonas de pastos que se califiquen como «mejoradas».

## TITULO II

## REQUISITOS PARA LA AUTORIZACION DE PASTOREO

*Artículo 4.*

Con carácter general, podrá autorizarse el pastoreo en el ámbito afectado por esta Ordenanza a todos aquellos ganaderos de vacuno, ovino y caballar que cumplan los requisitos objetivos y subjetivos previstos en la misma, y abonen las cuotas de aprovechamiento que se establezcan.

*Artículo 5.*

Podrán solicitar autorización municipal de aprovechamiento de pastos vecinales las personas físicas o jurídicas, que, estando englobados en el artículo 2 del Título I, se hallen al corriente en el pago de sus obligaciones fiscales y vecinales.

*Artículo 6.*

Todo el ganado que se pretenda mantener en régimen de pastoreo deberá estar adecuadamente identificado e inscrito en el Registro de Explotaciones Agrarias y, además de cumplir la normativa vigente en lo referente a saneamiento y movimiento

lurralde historikoan, eta udalerri mailan udal agintariek ezar ditzaketen, derrigorrez betebeharreko guztiak bete beharko ditu.

*7. Artikuluak.*

Erabat debekatuta dago ahuntzak eta txerriak larreratzea ordenantza honek hartzen dituen mendientan. Behi, ardi eta zaldi aziendei bakarrik utz dakieke larratzen, umedun edo umerik gabeko abere emeak badira, eta/edo azienda berritzeko abereak.

*8. Artikulua.*

Legazpiko Udalak emandako larratzeko baimenetik kanpo geratzen dira zehatz-mehatz, eskaera aurkezteko egunean, eskaera egin duen pertsona fisiko edo entitate juridikoaren izenean ez dagoenean azienda inskribatuta Ustialekuen Errolda.

Baimenetik kanpo geratzen da, era berean, merkatura doan pasadizoko azienda.

*9. Artikulua.*

Ordenantza honek aipatzen dituen baimenak erreboka daitezke, emateko bete behar ziren baldintzak ez badira bete, alde batera utzi gabe zigorrak ere ezar daitezkeela, horrela bada.

## III. TITULUA

## BAIMENTZEKO PROZEDURA

*10. Artikulua.*

Ordenantza honek aipatzen dituen larratzeko eskaerak larratu aurreko urteko urriaren 15a baino lehen egin behar dira Udal Erregistroan eta eskaeretan adierazi behar da, espezien arabera, zenbat buru larratu nahi den. Eskaera orriarekin batera abere bakoitzaren jabearen eta identitatearen ziurtagiri egiaztagarriak aurkeztu behar dira eta eskatzen diren osasun betebeharrak betetzen direla ere egiaztatu.

Horiek gain, larratzeko baimena emateko beharrezko derizkion datu osagarriak eska ditzake Udalak.

*11. Artikulua.*

Eskaerak, egin beharreko kontsiderazio, erregulazio eta/edo mugegetekin batera, Larreak Ustiatzeko Urteko Planean sartu eta Gipuzkoako Foru Aldundiko Mendi Zuzendaritzara bidali behar dira, onar ditzan.

Tramite hori bete ondoren, eskaera bakoitzaren behin-behineko ebazpena jakinaraziko die Udalak eskatzaileei. Eskaera hori behin betikoa izango da eskatzaileak ezarrita dauden udal tasak, baimendutako abereen kopururari bakarrik dagozkionak, ordaintzen dituenean.

*12. Artikulua.*

Larreak preferenteki herriko abeltzainentzat izango dira. Udalak antola ditzake ustiapen horiek ondoko irizpide hauei jarraituz:

pecuario, deberá de satisfacer aquellos requisitos que puedan ser de obligado cumplimiento en el Territorio Histórico de Gipuzkoa, así como los que con caracter local puedan establecer las autoridades municipales.

*Artículo 7.*

Queda terminantemente prohibida la pasturación de ganado cabrío y porcino en los montes a que se refiere la presente Ordenanza, permitiéndose únicamente el pastoreo de ganado vacuno, ovino y caballar, siempre que sean animales de vientre con o sin descendencia y/o animales destinados a reposición.

*Artículo 8.*

Las autorizaciones otorgadas por el Ayuntamiento de Legazpi excluirán taxativamente el pastoreo de ganado, que en la fecha de presentación de la solicitud no se halle inscrito en el Registro de Explotaciones como perteneciente a la personas o entidad jurídica solicitante.

Queda excluido, igualmente, el pastoreo del ganado transeúnte destinado a la compraventa.

*Artículo 9.*

Las autorizaciones a que se refiere la presente Ordenanza podrán ser revocadas en caso de incumplimiento de cualquiera de las condiciones en que se otorgaron, con independencia de la imposición, en su caso, de las sanciones que correspondan.

## TITULO III

## PROCEDIMIENTO DE AUTORIZACION

*Artículo 10.*

Las solicitudes de pastoreo a que se refiere la presente Ordenanza deberán ser formuladas en el Registro Municipal antes del 15 de octubre del año anterior al del periodo de pastoreo tratado, indicando en las mismas el número de cabezas de ganado por especie que desea que paste en el monte. Junto con la hoja de solicitud se presentarán los correspondientes certificados acreditativos de la titularidad e indentidad de cada animal, asi como del cumplimiento de los requisitos sanitarios exigibles.

El Ayuntamiento podrá requerir, además, los datos complementarios que estime oportunos para el otorgamiento, en su caso, de la autorización de pastoreo.

*Artículo 11.*

El conjunto de las solicitudes, junto con las consideraciones, regulaciones y/o limitaciones pertinentes, se incluirán en el Plan Anual de Aprovechamiento de Pastos que será remitido a la Dirección de Montes de la Diputación Foral de Gipuzkoa, para someter el mismo a su aprobación.

Cumplimentado este trámite, el Ayuntamiento notificará a los solicitantes la resolución provisional de cada solicitud, que pasará a definitiva cuando el solicitante abone las tasas municipales establecidas, que corresponderán únicamente al número de animales autorizados.

*Artículo 12.*

El uso de los pastizales estará destinado preferentemente a los ganaderos locales. El Ayuntamiento podrá ordenar los aprovechamientos con sujeción a los siguientes criterios:

1) Larreratzeko baimenak, hasiera batean, I. tituluko 2. artikuluaren barruan egon eta Arrobiko larreak, eraldatu eta hobetzeko lanen hasieratik, antolamendu baten barruan, ustiatzen ibili direnei emango zaizkie.

2) Baimen horiek beste ustiapen batzuekin bat etorriko liratekeenean, larratzeko baimena eman daiteke Legazpiko auzotarrei edota udalerriko ustialeku edo etxaldeen jabeei aurreko apartaduan ez badaude sartuta.

3) Mendiaren baliabide naturalak gutxitzeko arriskurik gabe, oraindik beste larratze batzuk ere baimentzeko aukera badago, larratzeko baimena eman dezake Udalak Legazpin bizi ez arren eskaera egin duten abeltzainei.

Udalak eman ditzake baimenak denbora, espazio edo abelburu kopuruari begiratuta. Aurreko apartaduetako edozeinen barruan, gertatzen bada larre eskaerek mendiaren ustiapen normala gainditu egiten dutela, Udalak abelburuen kopuruaren arabera eman ditzake baimenak.

*13. Artikulua.*

Legazpiko Udalak emandako larratzeko baimenak urtebeterako izango dira, hau da, eskaera aurkeztutako egunaren ondoko urte natural osorako. Baimena ematen den kasuetan zigilu edo identifikatzeko udal adierazle batez markatu behar dira abereak.

*14. Artikulua.*

Egin behar duten ustiapenaren ordain gisa, abelburuko (edo artaldeko) abeltzainek ordaindu behar dituzten gutxieneko kuotak jarriko ditu Udalak.

Hasiera batean Udalak jarriko dituen kuotak larre horiek zaintzeak (ustiatzearen ondorioz) ekarriko dituen gastuak ordaintzeko izango dira.

XEDAPEN GEHIGARRIAK

*Lehena.*

Ordenantza honetan aurreikusitakoa urratuz gero, zigortzeko ahalmena Gipuzkoako lurralde historikoko Baso Administrazioari dagokio, Mendien Foru Arauean ezarritakoari jarraituz.

*Bigarrena.*

Ordenantza honetan eta Larreak Ustiatzeko Urteko Planetan erabakitakoa hobeto betetzeko, Legazpiko Abentzainen Batzordea edo Elkartea eratu eta abian jartzen saiatuko da herriko Udala.

AMAIERAKO XEDAPENA

Ordenantza honek Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean osorik argitaratu eta hurrengo egunean hartuko du indarra.

Legazpi, 1998ko urtarrilak 29.—Alkateak.

(172) (976)

1) Las autorizaciones de pastoreo se otorgarán inicialmente a los pastores y ganaderos que englobados dentro del artículo 2 del Título I hayan venido ejercitando el aprovechamiento ordenado de los pastos de Arrobi, desde el inicio de las labores de transformación y mejora.

2) Si las autorizaciones indicadas fueran compatibles con otros aprovechamientos, podrá autorizarse el pastoreo a los ganaderos vecinos de Legazpi o titulares de explotaciones o fincas rústicas ubicadas dentro del término municipal no incluidos en el apartado anterior.

3) Si todavía fuera posible la autorización de nuevos pastoreos sin menoscabo de los recursos naturales del monte, el Ayuntamiento podrá autorizar el pastoreo a los ganaderos solicitantes que no residan en el municipio de Legazpi.

El Ayuntamiento podrá sujetar las autorizaciones a oportunas condiciones de tiempo, espacio, o número de cabezas de ganado. En caso de que, dentro de cualquiera de los apartados anteriores, la demanda de pastos superase el aprovechamiento normal del monte, el Ayuntamiento otorgará las autorizaciones de forma proporcional al número de cabezas de ganado.

*Artículo 13.*

Las autorizaciones de pastoreo otorgadas por el Ayuntamiento de Legazpi tendrán una vigencia anual, coincidente con el año natural siguiente al de la fecha de presentación de la solicitud. En los casos resueltos favorablemente se marcará a las reses con un sello o indicador municipal de identificación.

*Artículo 14.*

El Ayuntamiento fijará las cuotas mínimas que hayan de satisfacer los ganaderos por cabeza de ganado (o por rebaño en su caso) que vayan a tener en dichos terrenos, en contrapartida de los aprovechamientos que se les reconocen.

Inicialmente el montante de las cuotas fijadas por el Ayuntamiento se destinarán a cubrir los gastos originados en el mantenimiento de dichos pastos, y cuyo deterioro sea imputable al hecho mismo del aprovechamiento.

DISPOSICIONES ADICIONALES

*Primera.*

La potestad sancionadora por infracción de lo previsto en la presente Ordenanza corresponderá a la Administración Forestal del Territorio Histórico de Gipuzkoa, de conformidad con lo establecido en la Norma Foral de Montes.

*Segunda.*

A efectos del mejor cumplimiento y observancia de lo dispuesto en esta Ordenanza y en los Planes Anuales de Aprovechamiento de Pastos, el Ayuntamiento de Legazpi fomentará la creación y funcionamiento de una Junta o Asociación de Ganaderos de Legazpi.

DISPOSICION FINAL

La presente Ordenanza entrará en vigor el día siguiente de su íntegra publicación en el Boletin Oficial de Gipuzkoa.

Legazpi, a 29 de enero de 1998.—El Alcalde.

(172) (976)